

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2721

AGINDUA, 2025eko ekainaren 4koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2025eko otsailaren 18ko Aginduaren babesean aurkeztutako eskabideak ebazten dituena, zeinaren bidez onartzen baitira 20.000 biztanletik beherako udalerrietan jarduera fisikoarekin lotutako orientazio-zerbitzuak ezartzeko eta mantentzeko tokiko kirol- eta komunitate-egiturak eta -espazioak egokitzera eta hobetzera bideratutako 2025eko dirulaguntza-deialdiaren oinarriak, Europar Batasunak (Next Generation EU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (SEEP).

AURREKARIAK

1.– 2025eko martxoaren 13an, EHAA-n argitaratu zen Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko otsailaren 18ko Agindua. Agindu horrek onartzen ditu 20.000 biztanletik beherako udalerrietan jarduera fisikoarekin lotutako orientazio-zerbitzuak ezartzeko eta mantentzeko tokiko kirol- eta komunitate-egiturak eta -espazioak egokitzera eta hobetzera bideratutako 2025eko dirulaguntza-deialdiaren oinarriak, Europar Batasunak (Next Generation EU) finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (SEEP).

2.– 2025eko otsailaren 18ko Aginduaren 14. artikulua ezartzen du dirulaguntzak emateko aginduaren edukia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela, hargatik eragotzi gabe dirulaguntzen eskatzaileei ebazpena banan-banan jakinaraztea.

Hori dela eta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea, I. eranskinean, Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko otsailaren 18ko Aginduaren dirulaguntzen onuradunen zerrenda.

Bigarrena.– II. eranskinean adierazitako eskaerak ez onartzea, bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Honako Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea interesatu guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 4a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOTXEA OTAOLEA.

2025eko ekainaren 18a, asteazkena

I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Espedientea	Entitatea	IFK	Puntuak	Dirulaguntza (euro)
009-TKE-2025	Andoaingo Udala	P2001000E	76	12.489,22
005-TKE-2025	Arratzua-Ubarrundiako Udala	P0100900J	19	12.338,00
002-TKE-2025	Astigarragako Udala	P2009400I	26	16.883,58
007-TKE-2025	Beasaingo Udala	P2002100B	16	10.389,90
014-TKE-2025	Eskoriatzako Udala	P2003500B	85	37.764,47
016-TKE-2025	Etxebarriko Udala	P4803600H	34	22.078,53
011-TKE-2025	Legutioko Udala	P0106700H	20	12.987,37
015-TKE-2025	Lemoako Udala	P4806500G	32	14.661,06
013-TKE-2025	Oñatiko Udala	P2006300D	35	22.727,90
010-TKE-2025	Urretxuko Udala	P2008300B	13	8.441,79
Guztira				170.761,82

II. ERANSKINA
EZETSITAKO ESKAERAK

Espedientea	Entitatea	IFK	Arrazoia
012-TKE-2025	Amorotoko Udala	P4800400F	Ez du baldintzak betetzen: udalerrria ez du orientazio fisikoko zerbitzurik (5. art)
017-TKE-2025	Antzuolako Udala	P2001200A	Ez du baldintzak betetzen: udalerrria ez du orientazio fisikoko zerbitzurik (5. art)
004-TKE-2025	Arteako Udala	P4802700G	Ez du baldintzak betetzen: udalerrria ez du orientazio fisikoko zerbitzurik (5. art)
003-TKE-2025	Berangoko Udala	P4802000B	Ez du baldintzak betetzen: udalerrria ez du orientazio fisikoko zerbitzurik (5. art)
008-TKE-2025	Loiuko Udala	P4806800A	Ez du baldintzak betetzen: udalerrria ez du orientazio fisikoko zerbitzurik (5. art)
001-TKE-2025	Eskolabarri S. Coop.	F48852164	Eskatzailea ez da tokiko entitatea/ (art. 4, eta art. 3, 7/1985 LBRL)
006-TKE-2025	Gautegiz Arteagako Udala	P4804900A	Ez du baldintzak betetzen: udalerrria ez du orientazio fisikoko zerbitzurik (5. art)